

## EGUZKIKO FOTOVOLTAIKOAREN ENERGIAKO BALDINTZAK

### 1. Aurreazterketa pertsonalizatua

Konpromisorik gabeko bisita eta soluzioaren instalazioari buruzko aurreazterketa pertsonalizatua. Horrela, zure egoeran alternatiba eraginkorra ote den jakin ahal izango duzu.

### 2. Instalazioaren diseinua

Orain eguzki-energiaren instalazio fotovoltaikoa zure kontsumo-instalaziora bertara konekta daiteke; energia-sarera isurtzea baino soluzio interesgarriagoa da. Iberdrolan energia aurrezteko diseinurik egokiena landuko dugu, instalaziotik bertatik zuzenean kontsumitzeko, eta eskura dauden aukera guztiak aztertuko ditugu, esate baterako, banaketa-sareko hornidura etengo balitz, gauzez ere eguzki-energiaz gozatzeko modua ematen duten metaketa-ekipoak.

### 3. Instalazioa, legalizazioa eta abiaraztea

"Giltza eskura" moduko zerbitzua eskaintzen dizugu: guztiaren ardura hartuko dugu zuk ezertaz kezkatu behar izan ez dezazun.

Iberdrolan gure gain hartuko dugu ekipoak hornitzeko eta instalazio-lanek kalitate-baldintza onenekoak direla bermatzeko ardura. Gainera, zure instalazioa eraiki eta martxan jartzeko beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak tramitatzen lagunduko dizugu.

### 4. Diru-laguntzak tramitatzeko laguntza

Unean-unean indarrean dauden eta atxiki ditzakezun diru-laguntzei buruzko informazioa ematen dizugu, estatuko erakundeetakoak izan (IDAE), edo erakunde autonomikoetakoak izan.

Eta ez duzu aurkezteko epeengatik kezkatu beharko: Iberdrolak eskura dauden diru-laguntzen berri emango dizu une oro.

### 5. Mantentze-lanak

Urtean behin zure instalazioa aztertuko dugu, osagai guztien egoera berrikusiz (inbertsorea, babesak, konexioak, ainguratzeak...) behar bezala dabiltzala eta energia-ekoizpenaren maila egokia eta denboran zehar iraunkorra dela bermatzeko.

Gainera, matxurarik izatekotan, 900 22 45 22 telefono-zenbakira deitu besterik ez duzu izango beharrezkoa den laguntza teknikoa emateko eta ekipoetako bermeak kudeatuko ditugu fabrikatzailearen aurrean.

### 6. Web-zerbitzuak

Online zerbitzu bat eskura izango duzu, instalazioa bistaratu, monitorizatu eta kontrolatzeko. Ekoizpen- eta kontsumo-datuak denbora errealean kontsultatu ahal izango dituzu, baita historiak ere. Gainera, baterien karga-tarteak eta maila programatu ahal izango dituzu, halako metaketa-ekiporik izango bazenu.

### 7. Telefono bidezko arreta-zerbitzua 24 orduz

900 22 45 22 telefono-zenbakian zerbitzuarekin lotutako edozein kontsulta egin ahal izango duzu, baita instalazioarekin zerikusia duten gorabeherak jakinarazi ere.

### 8. Aseguruari buruzko aholkularitza

Beti komeni da instalazio fotovoltaikoa fenomeno meteorologikoen aurka aseguratzea, harriabarraren edo deskarga atmosferikoen aurka adibidez, baita lapurreten edo hirugarrenen kalteen aurka ere. Iberdrolak zure beharretara hobekien egokitzen den aseguruari buruzko aholkua emango dizu.